

## - Zein dira behar dituzuen elementu garrantzitsuenak zuen proiektuak funtziona dezan?

Gure proiektua erabiltzeko behar ditugun baliabide fisikoak mugikorra eta ordenagailuak dira, ordenagailuan gure aplikazioaren diseinua nolakoa izango den erabakitzeko eta egiteko erabiliko dugu eta mugikorra, gure aplikazioaren inguruan probak egiteko, nola funtzionatzen duen ikusteko eta ea aldaketaren bat egin behar dugun edo ez jakiteko.

Baliabide intelektualak, aplikazioaren diseinua egiteko Nahiaren sormena, Junerek antolakuntzarako eta diru kontuak eramateko dituen abileziak, Leire bezeroak bilatzeko duen abilezia aterako du baita ere enpresatara bisitak egiteko eta Udanez informatikaren inguruan dakitena aterako dute proiektua aurrera eraman ahal izateko.



**Funtsezko  
Baliabideak**



Finantza baliabideak, denok ditugun aurrezkiak izango dira. Bakoitzak 2000 € jarriko ditugu hasierako inbertsioa egiteko. Horrela, 8000 € horietatik 4500 € izango dira aplikazioa enpresa espezializatu baten bitartez sortzeko eta beste 3500 € -ak aurretik aipatutako *influencerr*-ekin akordioak egiteko erabiliko ditugu.

Giza baliabideak, lau bazkideak izango gara eta arazo larriren bat edukiz gero edo beste pertsona baten beharra edukiz gero kontratatatu egingo genuko gure arazoa konpontzen saiatzeko.

